Ordiziako Udala

2021IOSB0007

Ordizian, **2021eko maiatzaren 27an** udaleko OSOKO BILKURAk ohiko deialdian bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **27 de mayo de 2021** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garciandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Ainhoa Jimenez Goñi | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jesus M.Lariz Orbezabal | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Itsaso Muñoz Rodriguez | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Lander Mujika Onandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ-PNV |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ-PNV |
| Arantxa Arocena Gomez | EAJ-PNV |
| Joseba Aranburu Ganzarain | EAJ-PNV |
| Xabier Crespo Ibarrolaburu | EAJ-PNV |
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ-PNV |
| Agurtzane Antoñana Arizmendi | EAJ-PNV |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Juan Ignacio Alonso Arratibel | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

.

**BESTE BERTARATZEAK ETA IRTEERAK:**

**AZTERTUTAKO GAIAK:**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

**1.-** 2021eko martxoaren 25eko osoko bilkurak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.

*1.- Aprobación del borrador del acta de Pleno celebrado el día 25 de marzo de 2021.*

**2.-** 2021eko apirilaren 29ko osoko bilkurak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.

*2.- Aprobación del borrador del acta del Pleno celebrado el 29 de abril de 2021.*

**3.-** Goierriko Ekimena SA Sozietatearen kapital handitzeagatiko lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea eta bere Estatutu Sozialen 5. artikuluaren aldaketa onartzea. (2021IFUO0001).

*3.- Aprobación de la renuncia al derecho de suscripción preferente y aceptación de la modificación del artículo 5 de los Estatutos Sociales de la Sociedad Goierriko Ekimena, S.A.* (2021IFUO0001).

**4.-** J.A.S.A bitarteko funtzionarioak norberaren konturako jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasun aitortzeko egin duen eskaera ezesteko proposamena. (2021SLAB0002)

*4.- Propuesta de desestimar la solicitud de reconocimiento de compatibilidad para el ejercicio de actividad privada por cuenta propia realizada por el funcionario interino J.A.S.A (*2021SLAB0002)

**5.-** Adierazpen instituzionala, maiatzaren 17an Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

*5.- Manifiesto institucional con motivo de la celebración del 17 de mayo de Día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia.*

**6.-** Podemos Ordizia Ahal Dugu taldeak aurkeztutako proposamena “Kalean dauden pertsonen eskubideak defendatzeko”.

*6.- Propuesta presentada por el grupo Podemos Ordizia Ahal Dugu para la defensa de los derechos de las personas en la calle.*

**7.-** Podemos Ordizia Ahal Duguk proposatutako adierazpen instituzionala hilerokoaren pobreziarekin amaitzeko maiatzaren 28an ospatzen den Emakumeen Osasunaren aldeko ekintzen Nazioarteko Eguna dela-eta.

*7.- Propuesta de declaración institucional presentada por el grupo Podemos Ordizia Ahal Dugu para la erradicación de la pobreza menstrual con motivo del Día Internacional de Acción por la Salud de las Mujeres que se celebra el 28 de mayo.*

**8.-** Alkatetza eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari aldatzen dizkion Dekretuaren berri ematea. (2020/0623 Dekretua ordezkatzen duen 2021/0622 Dekretua).

*8.- Dación de cuenta del Decreto que modifica las competencias de alcaldía delegadas en favor de la Junta de Gobierno Local. (Decreto 2021/0622 que sustituye al Decreto 2020/0623).*

**9.-** Apirilean zehar onartutako Alkatetza dekretuen berri ematea.

*9.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de abril.*

**10.-** Galde-erreguak.

*10.- Ruegos y preguntas*

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

1-. 2022. urteko tokiko jai-eguna.
2- Asteburuetako gauetako jokabideen aurrean adierazpena.

*1-. 2022. Fiesta local anual.*
*2-. Comunicado ante los comportamientos nocturnos de fin de semana.*

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**GORABEHERAK:**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 18:00etan.** **AMAIERA: 19:00etan.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Eguneko gai-zerrendako gaiak aztertu aurretik, puntu bat presazko izaeraz sartzea bozkatu da.

Con carácter previo al examen de los asuntos incluidos en el orden del día, se somete a votación el carácter de urgencia para la inclusión de un punto.

**1-. 2022. urteko tokiko jai-eguna:**

Idazkari andrea

2021eko maiatzaren 25eko Gipuzkoako Lan eta Enplegu Saileko Ordezkariaren idazki bidez, maiatzaren 4ko 132/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2022. urteko jai-egunen egutegia onartzen duena, EAAOn argitaratu dela jakinarazi zela adierazi du.

Dekretuaren 2.1 artikuluari jarraiki, Udalak tokiko jai-egun izaera izango duten beste bi egun izendatu ditzake eta horretarako hilabeteko epea du dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Beraz, ezinbestean maiatzeko Osoko Bilkuran sartu beharreko gaia da; horrela egin ezean, aparteko osoko bilkura bat deitu beharko litzateke.

Hau azaldu ondoren, presazko izaera bozkatu da eta aho batez onartu da gaia Osoko Bilkura honetan sartzea.

***1- Fiesta Local año 2022:***

*Sra.Secretaria*

*Expone que mediante escrito del Delegado del Departamento de Trabajo y Empleo de Gipuzkoa de 25 de mayo de 2021, se comunicó la publicación en el BOPV el Decreto 132/2021, de 4 de mayo, por el que se aprueba el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2022.*

*De acuerdo con el artículo 2.1 del Decreto, el Ayuntamiento podrá designar otros dos días de fiesta local en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación. Se trata, por tanto, de un asunto que necesariamente debe incluirse en el Pleno de mayo, ya que de lo contrario habría que convocar un Pleno extraordinario.*

*Expuesto lo anterior, se somete a votación la urgencia y se aprueba por unanimidad la inclusión del asunto en este Pleno.*

**2-. Asteburuetako gauetako jokabideen aurrean adierazpena:**

Alkate jaunak

Adierazi du, azken asteburuetan, etxeratze ordutegia kendu zenetik herrian izan diren jokabideen harira, Udal gisa adierazpen bat egiteko beharra ikusi dela goizean Tokiko Gobernu Batzordean eta goizean Bittorrek egindako proposamenari jarraiki, indarrean dauden neurriak gogorarazteko ere erabiliko da. Ondoren, herrian bando gisa etxeko-atarietan jarrita nahiz sare-sozialetatik zabalduko dela adierazi du.

***2-. Manifiesto ante las conductas nocturnas de los fines de semana:***

*El Sr. Alcalde*

*Señala que los últimos fines de semana, al hilo de las actuaciones que se han dado en la localidad desde la supresión del horario de retirada al domicilio, se ha visto la necesidad de hacer una declaración como Ayuntamiento en la Junta de Gobierno Local y siguiendo la propuesta realizada por Bittor, se utilizará también para recordar las medidas vigentes. A continuación, señala que se difundirá en el pueblo, en forma de bando tanto en portales como desde redes sociales.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2021eko martxoaren 25eko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Proposamena

**2021eko martxoaren 25eko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

*Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.*

***1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 25 de marzo de 2021***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 25 de marzo de 2021***

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean inork ez du hitzik esan, beraz, jarraian, bozketa egin da.

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 17 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2021eko apirilaren 29ko osoko bilkurak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.**

Proposamena

**2021eko apirilaren 29ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea**

***2.- Aprobación del borrador del acta del Pleno celebrado el 29 de abril de 2021.***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 29 de abril de 2021***



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean hurrengoak izan dira:

Dubreuil jauna

12. orrian aldaketa bat egitea proposatu du eta hurrengo orrian, azken idatz-zatia ere aldatzeko eskatu du.

Alkate jauna

Alkate jaunak adierazi du bideoan jasotakoa ikusiko dela eta behar diren zuzenketak egingo direla. Beraz, gaia ez da bozkatu eta hurrengo osoko bilkuraren deialdira bidaliko da gaia.

*Debate*

*Al abrir el turno de debate por parte del Sr. Alcalde se producen las que a continuación se recogen:*

*Sr.Dubreuil*

*Propone una modificación en la página 12 y solicita que en la siguiente página se modifique también el último apartado.*

*Sr.Alcalde*

*Por lo tanto, el Sr. Alcalde señala que se verá lo recogido en el vídeo y se harán las correcciones oportunas. En consecuencia, el asunto no se somete a votación y se remitirá con la siguiente convocatoria de Pleno.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Goierriko Ekimena SA Sozietatearen kapital handitzeagatiko lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea eta bere Estatutu Sozialen 5. artikuluaren aldaketa onartzea.**

Proposamena

**AURREKARIAK:**

Ordiziako Osoko Bilkurak 1993ko maiatzaren 18an Goierriko ekimena SA sortzea erabaki zuen, haren estatutuak onartzea, 2310 akzio izendun harpidetzea eta 2.310.000 pezetako kapitala ordaintzea.

Erabaki horren bidez, sozietate publikoaren esku uzten da hainbat zerbitzuren kudeaketa; zehazki, bere Estatutuetako 2. artikuluari jarraiki, sozietate publikoaren objektua, besteak beste, “Goierri eta berau osatzen duten udalerriak sustatzeko interesgarriak diren jarduerak egitea; enpresa-, turismo-, negozio-, ikerketa- eta prestakuntza-jardunerak” egitea da. Eta horretarako ezaugarri jakin batzuekin eratu zen, besteak beste, kapital osaerarekin.

2007. urteko urriaren 1ean, sozietate honen kapital-handitze bat onartu zen, eta beraz, aipatu sozietatearen kapital soziala 510.104,76 eurotan gelditu zen.

***3.- Aprobación de la renuncia al derecho de suscripción preferente y aceptación de la modificación del artículo 5 de los Estatutos Sociales de la Sociedad Goierriko Ekimena, S.A.***

*Propuesta*

***ANTECEDENTES:***

*El Pleno del Ayuntamiento de Ordizia acordó el 18 de mayo de 1993 la creación de Goierriko ekimena SA, la aprobación de sus estatutos, la suscripción de 2310 acciones nominativas y el pago de un capital de 2.310.000 pesetas.*

*Mediante este acuerdo, se le encomienda a la sociedad pública la gestión de una serie de servicios; en concreto, según el artículo 2 de sus Estatutos, la sociedad pública tiene por objeto, entre otros “la realización de actividades empresariales, turísticas, de negocios, de investigación y de formación de interés para la promoción del Goierri y de los municipios que lo integran”. Y para ello se constituye con una serie de características, entre las que se encuentra, la composición del capital.*

*En el año 2007, a fecha de 1 de octubre, se aprobó una ampliación de capital de la citada sociedad, de modo que, el capital social de la misma quedó fijado en 510.104,76 euros.*

Udalerrietako biztanleria urteetan aurrera aldatuz joan denez, Administrazio Kontseiluak komenigarri jo zuen sozietatearen kapitalaren banaketa egokitzea udalerri bakoitzeko biztanleriak bazkide diren udalen biztanleria osoaren gainean duen pisura, eta horretarako, 2020-06-30ean hartutako akordioan sozietatearen kapitalaren banaketa egungo biztanleriaren egiturara egokitzea proposatu zuen, 14.237 akzio jaulkiz eta 85.564,37 €ko ekarpena eginez, udalek sozietatearen aurka dituen kredituaren kargura, bakoitzari dagokion zati proportzionalean, zenbatekoa biztanleriaren pisura egokitu arte.

*Dado que la población de los Ayuntamientos ha ido modificándose a lo largo de los años, el Consejo de Administración consideró conveniente adecuar la distribución del capital de la sociedad al peso de la población de cada municipio sobre la suma total de la población de los ayuntamientos socios, y por ello propuso mediante acuerdo adoptado el 30-06-2020 adecuar la distribución del capital de la sociedad a la estructura de la población actual, mediante la emisión de 14.237 acciones y una aportación de 85.564,37 € con cargo al crédito que ostenten los Ayuntamientos contra la sociedad, cada uno en la parte proporcional que les corresponde hasta adecuar el importe al peso de la población.*

Zehazki, Ordiziako Udalarentzat hurrengoa suposatzen du: 3.235 titulu, 19.442,35 €ko zenbatekoarekin.

*En concreto, para el Ayuntamiento de Ordizia supone lo siguiente: 3.235 títulos con un importe de 19.442,35 €.*

Hori guztia, 2020ko urriaren 29an egin zen osoko Bilkuran onartu zen. Zehazki, hurrengoa onartu zen:

*Todo ello fue aprobado en el Pleno del Ayuntamiento que se celebró el día 29 de octubre de 2020. En concreto, se acordó lo siguiente:*

*“1-. Udalerri bakoitzaren biztanleriara egokitzeko 3.235 titulu, alegia 19.442,35€. Udalaren Sozietatearen aurka duen kredituaren kargura (ez du ekarpenik egingo)*

*2-. 36.816 titulu, alegia, 221.264,16 euroko eskudiruko kapital sozialaren ondare ekarpena egitea onartzea. 2020. urtean: 110.632,08 euro eta beste hainbeste 2021ean”.*

*“1-. 3.235 títulos de adecuación a la población de cada municipio, es decir, 19.442,35€, con cargo al crédito municipal a la sociedad (no generará aportaciones).*

*2-. Aprobar la aportación patrimonial de capital social en efectivo por importe de 221.264,16 euros, 36.816 títulos. Año 2020: 110.632,08 euros y otros tantos en 2021”.*

Horrek guztiak lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea dakar, izan ere, lehen esan dugun bezala, kapital handitzea berau egungo biztanleriara egokitzeko egin da, eta kasu batzuetan, biztanleria handitu egin da, eta beste batzuetan, murriztu.

*Ello implica asimismo tener que renunciar al derecho de suscripción preferente, pues como hemos comentado anteriormente, la ampliación se realizó precisamente para adecuar a la población actual de cada municipio la distribución del capital y, en algunos municipios se ha incrementado y en otros, se ha disminuido.*

Bestalde, kapitala handitzeak Estatutuak aldatzea dakar kapital sozialari erreferentzia egiten dion artikuluari dagokionean. Hala, 5. artikulua, modu honetan geldituko litzateke idatzita:

*Por otro lado, la ampliación de capital conlleva modificar los Estatutos en lo referente al artículo que trata el capital social. En concreto, se trata del artículo 5, que quedaría redactado de la siguiente manera:*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

"5. artikulua.- Kapital soziala MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMOTAKOA izango da, erabat harpidetuta eta ordainduta. Kapital hori berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpi akzioetan zatitua dagoela ulertuko da, korrelatiboki zenbatuko dira, batetik, berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpira, biak barne, sei euro eta zentimo bateko balioarekin, akzio bakoitza zatiezina izango da".

*"Artículo 5º.- El capital social queda fijado en la cantidad de UN MILLÓN QUINIENTOS CINCUENTA Y CINCO MIL SEISCIENTOS SETENTA CON CUARTENTA Y SIETE EUROS, totalmente suscrito y desembolsado. El referido capital se entenderá dividido en doscientos cincuenta y ocho mil ochocientas cuarenta y siete acciones, numeradas correlativamente del uno al doscientos cincuenta y ocho mil ochocientos cuarenta y siete (1/248.847), ambas inclusive, de seis con cero un euros, cada una de ellas, indivisibles".*

Hori guztia Goieki SA sozietatearen Estatutuetako 11. artikuluari jarraiki Udal bakoitzeko Osoko Bilkurak onartu behar du.

*Todo ello, según el artículo 11 de los Estatutos de la sociedad Goieko SA ha de ser aprobado por el Pleno de cada ayuntamiento.*

Hori horrela, Ordiziako Osoko Bilkurak,

*En consecuencia, el Pleno del Ayuntamiento de Ordizia,*

**ADOSTU DU**

***ACUERDA***

**Lehenengoa-.** Lehenespenezko harpidetza eskubideari uko egitea, kapital soziala egun udalerri bakoitzak duen biztanleria kopurura egokitzeko.

***Primero**-. Renunciar al derecho de suscripción preferente con el fin de que el capital social se adecue a la población actual de cada municipio.*

**Bigarrengoa**-. Goierriko ekimena sozietate anonimoaren Estatutuetako 5. artikulua aldatzea, zeina modu honetan geldituko den idatzita:

"5. Artikulua.- Kapital soziala MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMOTAKOA izango da, erabat harpidetuta eta ordainduta. Kapital hori berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpi akzioetan zatitua dagoela ulertuko da, korrelatiboki zenbatuko dira, batetik, berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpira, biak barne, sei euro eta zentimo bateko balioarekin, akzio bakoitza zatiezina izango da".

***Segundo**-. Modificar el artículo 5 de los Estatutos de la sociedad anónima Goierriko ekimena, que quedaría redactado de la siguiente manera:*

*"Artículo 5º.- El capital social queda fijado en la cantidad de UN MILLÓN QUINIENTOS CINCUENTA Y CINCO MIL SEISCIENTOS SETENTA CON CUARTENTA Y SIETE EUROS, totalmente suscrito y desembolsado. El referido capital se entenderá dividido en doscientos cincuenta y ocho mil ochocientas cuarenta y siete acciones, numeradas correlativamente del uno al doscientos cincuenta y ocho mil ochocientos cuarenta y siete (1/248.847), ambas inclusive, de seis con cero un euros, cada una de ellas, indivisibles".*

**Hirugarrena**-. Akordio hau GOIEKIri jakinaraztea.

***Tercero**-. Dar traslado del presente acuerdo a GOIEKI.*

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, inork ez du hitzik hartu; beraz, jarraian, bozketa egin da.

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 17 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- J.A.S.A bitarteko funtzionarioak egindako norberaren konturako jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasun aitortzaren eskaera ezesteko proposamena.**

Proposamena

2019ko abenduaren 19an, JA S.A bitarteko funtzionario izendatu zen Udaleko arkitekto tekniko, aparejadore/zerbitzu-arduradun izateko.

2021eko martxoaren 12an, Udaleko erregistroan funtzionario horren eskabidea jaso zen, arkitekto tekniko gisa norberaren konturako jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasuna aitortzeko.

2021eko maiatzaren 4ean Idazkariak bere txosten juridikoa igorri zuen; bertan ondorioztatzen zen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikuluari jarraiki, arkitekto teknikoaren izendapena ez dela bateragarria norberaren konturako jarduera pribatua egitearekin.

Aipatu artikuluak ezartzen du soilik jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna aitortuko zaiela langileei, baldin eta beren lanpostuengatik jasotzen dituzten osagarri espezifikoen edo antzeko kontzeptuen zenbatekoa ez bada euren oinarriko soldataren %30 baino handiagoa, antzinatasuna kenduta.

Beraz, ulertu behar da, osagarri espezifikoa ehuneko hori baino handiagoa dutenek ezingo dutela inongo jarduera pribaturik egin eurek administrazioan duten lanpostuaz gain.

Berariazko osagarriaren ordainsari-kontzeptuaren

***4.- Propuesta de desestimar la solicitud de reconocimiento de compatibilidad para el ejercicio de actividad privada por cuenta propia realizada por el funcionario interino J.A.S.A***

*Propuesta*

*Con fecha 19 de diciembre de 2019, JA S.A fue nombrado funcionario interino para ocupar el puesto de Arquitecto Técnico, aparejador/responsable de servicios del Ayuntamiento*

*En fecha de 12 de marzo de 2021 ha tenido entrada en el Registro solicitud del citado funcionario de reconocimiento de compatibilidad para el ejercicio de actividad privada por cuenta propia como Arquitecto Técnico.*

*Con fecha 4 de mayo de 2021 la Secretaría emitió informe jurídico donde se concluye que a la vista del artículo 16.4 de la Ley 53/1984 de 26 de diciembre, el puesto de arquitecto técnico resulta incompatible con el ejercicio de actividad privada por cuenta propia.*

*El citado artículo establece que sólo podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere el 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad.*

*Por tanto, hay que entender que quien supere dicho porcentaje de complemento específico no puede realizar actividad alguna aparte de la que realiza por su puesto en la Administración.*

*El concepto retributivo del complemento específico*

helburua zailtasun tekniko, erantzukizun, dedikazio eta bateraezintasun bereziak lehenestea da; eta ildo horretan, udal arkitekto teknikoaren lanpostuak berariazko osagarri bat du, hirutekoak kenduta oinarrizko ordainsarien ehuneko 30 gainditzen duena.

Udalbatza da administrazio publikoetatik kanpo lanbide-, lan- edo merkataritza-jarduerak egiteko bateragarritasuna aitortzeko organo eskumenduna.

Horregatik guztiagatik, erabaki hau hartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

1-. EZESTEA JA S.A udal-arkitekto teknikoak (aparejadore/zerbitzu-arduradun postua) egindako eskaera.

2-. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

<u>Idazkari andrea</u>

Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikuluari jarraiki, arkitekto teknikoaren izendapena ez da bateragarria norberaren konturako jarduera pribatua egitearekin, izan ere, aipatu artikuluak ezartzen du soilik jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna aitortuko zaiela langileei, baldin eta beren lanpostuengatik jasotzen dituzten osagarri espezifikoen edo antzeko kontzeptuen zenbatekoa ez bada euren oinarrizko soldataren %30 baino handiagoa, antzinatasuna kenduta.

Bestalde, Antolaketa Batzordeari uko egitearen aukera ere planteatu zen eta zentzu honetan, esan behar da, gaur gaurkoz EAEn ez dela posible, izan ere, ez dago aukera hau Legean jasota (beste Autonomia Erkidego batzuek espresuki jasotzen dute aukera hau baina gurean ez).

*tiene como objeto primar factores como la especial dificultad técnica, responsabilidad, dedicación e incompatibilidad y, en este sentido, el puesto de Arquitecto municipal cuenta con un complemento específico que supera el 30 por cien de las retribuciones básicas excluidos los trienios.*

*El órgano competente para el reconocimiento de compatibilidad para el ejercicio de actividades profesionales, laborales o mercantiles fuera de las administraciones públicas, es el Pleno de la Corporación.*

*Por todo lo expuesto, se propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:*

***PROPUESTA DE ACUERDO***

*1-. DESESTIMAR la solicitud de JA S.A, Arquitecto Técnico Municipal (puesto aparejador/responsable de servicios).*

*2-. Notificar el presente acuerdo al interesado.*

*<u>Debate</u>*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*<u>Sra. Secretaria</u>*

*Explica que, de acuerdo con el artículo 16.4 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, el nombramiento de Arquitecto Técnico es incompatible con el ejercicio de una actividad privada por cuenta propia, ya que el citado artículo establece que sólo se reconocerá compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas a los trabajadores cuando el importe de los complementos específicos o conceptos similares que perciban por sus puestos de trabajo no supere el 30% de su salario base, excluida la antigüedad.*

*Por otra parte, se planteó también la posibilidad de renunciar a la Comisión Organizadora y, en este sentido, hay que decir que, a día de hoy, en la CAPV no es posible, ya que esta posibilidad no está recogida en la Ley (otras Comunidades Autónomas lo contemplan expresamente pero no en la nuestra).*

Bolinaga jauna

Guk zure txostenarekin bat egiten dugu eta alde bozkatuko dugu.

Alkate jauna

Txostena hain argia izanda ez dugu ikusten eztabaidarako aukerarik.

Dubreuil jauna

Alde bozkatuko dugu baina komenigarria izango litzateke Hitzarmenaren Aldebiko Batzordetik pasatzea gaia.

Idazkari andrea

Informazio Batzordetik pasa zen gaia eta inork ez zuen ezer esan, gainera, gai honek ez du zertan Hitzarmenaren Aldebiko Batzordetik pasa, izan ere, azken honen funtzioa soilik hitzarmenaren jarraipena egitea da. Gainera, Hitzarmenaren Aldebiko Batzordearen azken bileran hitz egin genuen aipatu batzordearen benetako funtzioaz, eta beraz, komenigarria da orain arte inertziaz hartu diren zenbait ohitura aldatzea.

Dubreuil jauna

Agian Balorazio Batzordetik ere pasa behar zen, baina beno, gaia hor utziko dut.

Sukia andrea

Aurretiaz ere beste halako bi kasu eman dira eta baiezkoa eman zitzaien, baina gu ados gaude idazkariaren txostenarekin eta beraz, aldeko bozka emango dugu.

Jarraian, bozketa egin da.

*Sr. Bolinaga*

*Nosotros compartimos su informe y votaremos a favor.*

*Sr. Alcalde*

*Siendo el informe tan claro no vemos posibilidad de debate.*

*Sr. Dubreuil*

*Votaremos a favor, pero hubiera sido conveniente pasar el tema por la Comisión Bilateral del Convenio.*

*Sra. Secretaria*

*El tema pasó por la Comisión Informativa y nadie dijo nada, además, este tema no tiene por qué pasar por la Comisión Bilateral del Convenio, cuya función es únicamente el seguimiento del mismo. Además, en la última reunión de la Comisión Bilateral del Convenio hablamos de la verdadera función de dicha Comisión, por lo que es conveniente modificar algunos hábitos que hasta ahora se han venido tomando con inercia.*

*Sr. Dubreuil*

*Igual también tenía que pasar por la Comisión de Valoración, pero bueno, dejo el tema ahí.*

*Dña. Sukia*

*Se han dado otros dos casos anteriores que fueron afirmativos, pero nosotros estamos de acuerdo con el informe de la secretaria, por lo que votaremos a favor.*

*A continuación se inicia la votación.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 17 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Adierazpen instituzionala maiatzaren 17an Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.**

Propuesta

1990eko maiatzaren 17tik OMEk homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zuenetik, egun hori ospatzen da, eta balio esanguratsua du lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualentzat, gaur egun LGTBI kolektiboak oraindik ere aurre egin behar dien eskubideen aldeko eta diskriminazioaren aurkako jardueren ardatz katalizatzaile gisa.

COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoera eragin handia izaten ari da gure kolektiboan ere; beraz, sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako gorrotoak eragindako erasoak salatzen jarraituko dugu. Eraso horiek ez dira gure inguruan bakarrik gertatzen. Lesbiana, gay eta bisexualen lege-babesean aurrerapen handiak egin diren arren, NBEko 69 estatu kidek sexu bereko helduen artean adostutako sexu-ekintzak zigortzen jarraitzen dute, ILGAk (Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkartea) adierazten duen bezala. Human Rights Watchen arabera, pandemiak desberdintasun arrakalak eragin ditu, eta kolektibo batzuk besteak baino ahulagoak dira. LGTBI kolektiboaren aurkako aurreiritziak nabarmenak izan dira Covid-19ri emandako erantzunetan munduko eskualde askotan.

Ordiziako Udalak, maiatzaren 17an eta urteko egun guztietan LGTBI pertsonen eta haien ingurukoen ondoan jarraituko du, LGTBIfobiaren aurka borrokatuz. Gaur egun, oraindik ere beharrezkoa da gure gizartean oraindik indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzea. Gizarte osoaren erantzukizuna, diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien aurka borrokatzeko.

Ordizia inklusibo eta askotarikoa aldarrikatzen dugu, aniztasuna aztergai dugun esparrutik ulertuta, baina baita bere osotasunean ere. Ordizian, indarrak batuko ditugu gizarte- eta erakunde-eragile

***5.- Manifiesto institucional con motivo de la celebración del 17 de mayo de Día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia.***

*Propuesta*

*Desde el 17 de mayo de 1990, día en que la OMS eliminó la homosexualidad de la lista de enfermedades, se conmemora este día, y tiene un valor significativo para las personas lesbianas, gays, transexuales, bisexuales e intersexuales como eje catalizador de las actuaciones en favor de sus derechos y contra la discriminación a la que a día de hoy todavía debe hacer frente el colectivo LGTBI.*

*La situación que estamos viviendo debido al COVID-19 está teniendo un gran impacto también en nuestro colectivo, por lo que seguiremos denunciando las agresiones provocadas por el odio a la diversidad sexual y de género. Estas agresiones no ocurren solo en nuestro entorno. A pesar de los avances considerables en la protección legal de las personas lesbianas, gays y bisexuales, 69 estados miembros de la ONU continúan penalizando los actos sexuales consensuados entre personas adultas del mismo sexo, tal y como señala ILGA (Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex). Según Human Rights Watch, la pandemia ha expuesto brechas de desigualdad, dejando a algunos colectivos más vulnerables que otros. Los prejuicios contra el colectivo LGTBI han sido evidentes en las respuestas al Covid-19 en muchas regiones del mundo.*

*En el Ayuntamiento de Ordizia, este 17 de mayo y todos los días del año, seguiremos al lado de las personas LGTBI y su entorno, luchando contra la LGTBIfobia. A día de hoy sigue siendo necesario consolidar la lucha contra las distintas discriminaciones que están aún vigentes en nuestra sociedad. Una responsabilidad de todo el conjunto de la sociedad para luchar contra todas las formas de discriminación y violencia.*

*Reivindicamos una Ordizia inclusiva y diversa, entendido la diversidad desde el ámbito que nos ocupa, pero también en su globalidad. En Ordizia, aunaremos esfuerzos con todo el conjunto de*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

guztiekin, gizarte justuagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko. Berdintasunerako eskubidearen eta sexu-orientazio eta generoagatiko diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraituko dugu, aniztasunaren bizipen askea sustatzeko helburuarekin.

Eztabaida

Alkate jauna:

Eguna maiatzaren 17an ospatu zen. Eguna baino lehen PSEE alderdiak eskaera bat aurkeztu zuen balkoian bandera bat jartzeko. Gure artean ere hitz egin genuen mozio eredu ezberdinak bazeudelako nahiz eta aurten ez diguten EUDELetik, aurreko urteetan jaso ohi dugun bezala, mozio eredu bat bidali.

BERDINDUtik bai, bertatik jaso dugu eredu bat. BERDINDU Eusko Jaurlaritzan gai hauekin lan egiten duen Saila da eta beraz adostu zen BERDINDUren testu hori gure egin eta adierazpen bezala onartzea.

Bolinaga jauna

Ondo egongo zen Olano parean dagoen zebra-bidea berriro margotzea.

Alkate Jauna:

Ados.

Jarraian, Ainhoa Jimenez zinegotziak Adierazpena irakurri du.

Ondoren, bozketa egin da.

*agentes sociales e institucionales para construir una sociedad más justa, respetuosa e integradora. Seguiremos trabajando por el derecho a la igualdad y la no discriminación por motivo de orientación sexual y de género con el objetivo de promover la libre vivencia de la diversidad.*

*Debate*

*Sr. Alcalde:*

*El día se celebró el 17 de mayo. Antes de la fecha el PSEE presentó una solicitud para la colocación de una bandera en el balcón. También hablamos entre nosotros porque existían diferentes modelos de moción, aunque este año no nos han enviado desde EUDEL, como venimos recibiendo en años anteriores, un modelo de moción.*

*Desde Berdindu sí hemos recibido un modelo, Berdindu es el Departamento que trabaja con estos temas en el Gobierno Vasco, por lo que se acordó hacer nuestro texto y aprobarlo como declaración.*

*Sr. Bolinaga*

*Hubiera estado bien volver a pintar el paso de cebra a la altura de Olano.*

*Sr. Alcalde:*

*De acuerdo.*

*A continuación la Concejala, Ainhoa Jimenez, da lectura a la Declaración.*

*A continuación se procede a la votación.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 17 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Podemos Ordizia Ahal Dugu taldeak aurkeztutako proposamena "Kalean dauden pertsonen eskubideak defendatzeko".**

**AZALPENA**

**Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea bermatzen du, eskubide unibertsal eta subjektibo gisa.

**Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, gizarte zerbitzuen Zorroari buruzkoak**, prestazio eta zerbitzu horiek zeintzuk diren garatzen du, eta, zehazki, 33.2 artikuluan, udal-eskumeneko prestazio gisa honako hauek ezartzen ditu, besteak beste:

1.7. Eguneko arreta-zerbitzuak.
1.8. Gaueko harrera-zerbitzuak.

**2018-2021 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiak** izaera multidimentsionala izateaz gain, erakunde arteko izaera nabarmena du, bizitegi-bazterketa larriko egoerak murrizteko eta horri aurre hartzeko modu bakarra baita. Esparru horretan egindako diagnostikoak ohartarazten du etxerik gabeko pertsonei arreta emateko baliabide gehienak bigarren arretaren eremuan daudela (foru aldundien kontura), eta EAEko udalak beren gain hartzen ari direla etxerik gabeko pertsonei zuzenean bideratutako gizarte-zerbitzuen gastuaren %27 (5,2 euro biztanleko), gizarte-bazterketa egoeran dauen pertsonentzako bizitokiak eta egoitza-zentroak, gizarteratzeko eta gizarte-premietarako eguneko eta gaueko arreta-zentroak, eta gizarte jantokiak.

Era berean, **Arartekoak, ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorrean**, Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren jarraibideak betetzeko eskatu zien euskal administrazio publikoei, kalean bizi diren pertsonek bizitoki egokia eta gizarte-arreta izaten jarrai zezaten.

Kalean dauden pertsonekin lan egiten duten **Hirugarren Sektoreko gizarte-mugimenduek** eta erakundeek salatu dute egoitza-baliabide nahikorik ez daudela, hala nola eguneko zentro eta gaueko aterpetxe nahikorik, EAEn premia-egoeran dauden

***6.- Propuesta presentada por el grupo Podemos Ordizia Ahal Dugu para la defensa de los derechos de las personas en la calle.***

***EXPOSICIÓN DE MOTIVOS***

***La Ley vasca de servicios Sociales 12/2008, de 5 de diciembre,*** *garantiza el acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como un derecho universal y subjetivo.*

***El Decreto 185/2015 de 6 de octubre, de cartera de servicios sociales*** *desarrolla cuáles son esas presetaciones y servicios, y en concreto establece en su artículo 33.2. como prestaciones de competencia municipal, entre otros:*

*1.7.Servicios de atención diurna.*
*1.8. Servicios de acogida nocturna.*

***La Estrategia Vasca para Personas Sin Hogar 2018-2021****, además de un carácter multidimensional, tiene un marcado carácter interistitucional, como única forma posible de reducir y prevenir las situaciones de exclusión residencial grave. El diagnóstico realizado en el marco de la misma advierte de que la mayor parte de los recursos de atención a las personas sin hogar se ubican en el ámbito de la atención secundaria (a cargo de las diputaciones forales) y que los ayuntamientos de la CAPV están asumiendo tan solo un 27% de gasto (5,2 euros por habitante)de los servicios sociales más directamente orientados a las personas sin hogar (alojamiento y centros residenciales para personas en situación de exclusión/marginación, centros de acogida nocturna para atender necesidades de inclusión social, centros de día para atender necesidades de inclusión social y comedores sociales).*

*Así mismo****, el Ararteko en su Recomendación general 2/2020, de 5 de junio*** *instaba a las administraciones públicas vascas las directrices de la Estrategia Vasco para Personas Sin Hogar, para que las personas que viven en la calle sigan disponiendo de un alojamiento adecuado y de una atención social.*

***Los movimentos osciales y entidades del Tercer sector*** *que trabajan con personas en la calle, vienen denunciando la falta de recursos residenciales como centros de día y albergues de noche para la atención a todas las personas en*

pertsona guztiei arreta emateko. Udalerriak dira egoitza-zerbitzu horiek emateko betebeharraren titularrak, eta ez dira nahikoak izaten ari gizarte-erakundeek adierazitako premiei aurre egiteko. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko 2018ko IV. Azterlanaren datuen arabera, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak nabarmen egin du gora 2012tik 2018ra (argitaratutako azken azterlana), eta ia bikoiztu egin da 2016 eta 2018 arteko pertsonen kopurua (430 pertsona zeuden egoera horretan urte horretan EAEko 7 udalerri parte-hartzaileetan).

*situación de cesesidad en la CAV. Los municipios son los titulares de la obligación de prestear estos servicios residenciales, que no están siendo suficientes para poder hacer frente a la cobertura de las necesidades que manifiestan las entidades sociales. Según datos del IV Estudio sobre la situación del Centro de Documentación desde 2012 a 2018 (último estudio publicado), siendo que casi se duplica el númro de personas entre 2016 y 2018 (430 personas las que se encontraban en esta situación ese año en los municipios de la CAV participantes). En 2018, eran un total de 3.007 personas en situación de exclusión residencial grave.*

**COVID 19aren pandemiak** eta horren ondoriozko osasun, gizarte eta ekonomia krisiak gizarteko sektore guztietan izan du eragina, eta, bereziki, pertsona ahulengan, baita bizitzeko tokikirik ez dutenengan. Erakundeok errealitate gogor horri aurre egin behar diogu, inoiz baino kemen handiagorekin, baita behar bezala erantzun ere aurrean dugu erronkari.

***La pandemia de la COVID 19** y su consecuente crisis sanitaria, social y económica ha golpeado a todos los sectores de la sociedad y, muy especialmente, a las personas más vulnerables, especialmente a quienes no disponen de un lugar donde vivir. Desde las instituciones tenemos que hacer frente a esta dura realidad ahora más que nunca y responder adecuadamente al reto al que nos enfrentamos*

**Ondorioz, Ordiziako Elkarrekin Podemoseko Udal Taldeak honako erabaki hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:**

***En consecuencia, al Grupo Municipal de Elkarrekin Podemos-IU de Ordizia, propone al Pleno la adopción del siguiente,***

ERABAKIA

*ACUERDO*

1.- **Eusko Jaurlaritza** PREMIATZEA Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko berri bat egin dezala, iraungitako 2016-2019 planari jarraipena emateko.

*1.- INSTAR al **Gobierno Vasco** a que realice un nuevo Plan Estratégico de Servicios Sociales, que dé continuidad al caducado plan 2016-2019..*

2.- **Gipuzkoako Foru Aldundiari** eskatzea etxegabetasunari buruzko diagnostiko bat egin dezala eta bere baliabideak eta prestazioak egokitu ditzala lurraldearen errealitatera.

*2.- INSTAR a la **Diputación Foral de Gipuzkoa** a que realice un diagnóstico sobre el sinhogarismo y adecúe sus recursos y prestaciones a la realidad en la que se encuentra el territorio.*

3.- **Tokiko Gobernu Taldea** PREMIATZEA gaur egun gizarte zerbitzuen zorro dekretuko zerbitzuen hedapen eraginkorrari buruzko informazioa eman dezala, eta hilabeteko epean zabaltzeke dauden zerbitzuak garatzeko plangintza-egutegi bat aurkezteko konpromisoa har dezala, beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta, hala badagokio, aurrekontu-partida zabalduz horretarako.

*3.- INSTAR al **equipo de Gobierno Local** a que proporcione información acerca del despliegue efectivo de los servicios del decreto de cartera de servicios sociales a la fecha actual, así como a comprometerse en el plazo de 1 mes a presentar un calendario de planificación para el desarrollo de los servicios pendientes de desplegar, asignando los recursos que sean necesarios y en su caso, ampliado la partida presupuestaria dedicada a tal fin.*

4.- **Tokiko gobernu-taldeari** ESKATZEA lehen aipatutako gizarte-zerbitzuen erabiltzaileekin ebaluazio parte-hartzailea egin dezala, gehienez urtebeteko epean. Ebaluazio hori urteko gizarte-ekintzako memorietako datu kuantitatiboekin osatuko da, eta kalitatea, erabiltzaileen gogobetetze-maila eta emandako arretaren

*4.- INSTAR al **equipo de Gobierno Local** a realizar una evaluación participada con las personas usuarias de los servicios sociales antes señalados, en el plazo máximo de 1 año, que venga complementada con los datos cuantitativos de las memorias de acción social anuales y se evalúe la calidad, el grado de satisfacción de las personas*

eraginkortasuna ebaluatuko dira, eraginkortasuntzat hartuta eskura dauden baliabideen nahikotasuna, erantzun gabeko eskariak eta eskarien eraginkortasuna eskura dauden baliabideekin.

*usuarias y la efectividad de la atención prestada, entendiendo por efectividad la suficiencia de los recursos disponibles, las demandas no atendidas y la eficacia de las demandas atendidas con los recursos disponibles.*

5.- **Tokiko Gobernu Taldea** PREMIATZEA erroldatze soziala bultzatzeko irizpide argia eta ekintza zuzena ezartzera.

*5.- INSTAR al **equipo de Gobierno Local** a establecer criterios claros y una acción directa para el impulso del empadronamiento social.*

6.- ORDIZIAKO Udalaren Osoko Bilkurak, azkenik, gure **erakundeek eta gizarte-kolektiboek** egiten duten lana aintzat hartu nahi du, eta elkarrekin lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

*6.- El Pleno del Ayuntamiento de ORDIZIA quiere, por último, poner en valor el trabajo que realizan **las entidades y colectivos** sociales de nuestra ciudad y se compromete a seguir trabajando conjuntamente.*

<u>Eztabaida</u>

*<u>Debate</u>*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

<u>Sukia Andreak</u> mozioa irakurri du.

*La <u>Sra. Sukia</u> lee la moción.*

<u>Dubreuil jauna</u>

*<u>Sr.Dubreuil.</u>*

Abstenitu egingo gara mozio honetan. Bat egiten dugu kolektibo horretan gizarte-zerbitzuen ideia sustatzeko ideiarekin, baina ez gatoz bat beste puntu batzuekin.

*Nosostros nos vamos a abstener en esta moción. Compartimos la idea de promover la idea de servicios sociales en este colectivo, pero no compartimos algunas otros puntos.*

Adibidez, lehen puntuari dagokionez, ez gaude ados Eusko Jaurlaritzari Plan Estrategiko berri bat egitea eskatzearekin; izan ere, 2012. urteaz geroztik betetzen ari da Plana eta eginda dago Plan hori. Orain, 2021. urtean, bidezko ebaluazioa egiten ariko direla iruditzen zait. Beraz, ez zait egokia iruditzen Eusko Jaurlaritzari Legea betetzea eskatzea dagoeneko bete duenean.

*Por ejemplo, no compartidos, en relación al primer punto, el hecho de instar al Gobierno Vasco a elaborar un nuevo Plan Estratégico, pues ello implica instar a un Gobierno que ya está cumpliendo desde el año 2012 y ya está hecho dicho Plan. Ahora en el año 2021 me imagino que estarán realizando la pertinente evaluación. Por tanto, instar al Gobierno Vasco cuando ya ha cumplido la Ley no me parece oportuno.*

Bigarren puntuari dagokionez, egokia iruditzen zait Aldundiari diagnostiko bat egiteko eskatzea, nahiz eta dagoeneko hainbat proiektu egin dituen.

*En relación al segundo punto, me parece correcto instar a la Diputación para que haga un diagnóstico, aunque ya ha hecho varios proyectos.*

Harrigarriena da udal-eskumena denean udal-gobernuari ez eskatzea zerbait egiteko. Nire ustez, mozio hori osatu egin behar da.

*Lo que más me sorprende es que no se inste al gobierno municipal para que haga algo cuando se trata de una competencia municipal. Yo creo que esta moción debe completarse.*

Horretarako, lehenik eta behin, udal-eskumen hori zein den zehaztu behar da, azken horiek ere hainbat arlotan banatzen baitira.

*Para ello es necesario delimitar, en primer lugar, cuál es esa competencia municipal, pues éstas últimas se dividen también en varias áreas.*

Oinarrizko eremua eskualdekoa da, Goierri eta Urola bezala ulertuta; beraz, gobernu-taldeari eskatu behar zaio erakunderen bati eskualdeko udalerriekin akordio batera iristeko, horretarako erakunde espezifiko bat osatuz.

*El área básica es de ámbito comarcal, entendido como Goierri y Urola; por lo cual, lo que falta es instar al equipo de gobierno para que traslade a alguna institución a que lleguen a un acuerdo con los municipios de la comarca para conformar un organismo específico para ello.*

Guk ere badugu gizarte-zerbitzuei buruzko ibilbide-orri bat, 2018an onartua, eta udal eskumenak zein eskualdekoak eta eremukoak bereizten zituen.

*Nosotros también tenemos una hoja de ruta en relación con los servicios sociales aprobado en el año 2018, y en la misma se diferenciaban tanto las competencias municipales, como las de comarca y del área.*

Aurtengo martxoan, halaber, proposamen bat aurkeztu genion gobernu-taldeari, plan estrategikoaren ebaluazioan laguntzeko eta, horrela, elkarrekin gogoeta egiteko ibilbide-orri bat diseinatzeko.

*En marzo de este año presentamos también una propuesta al equipo de gobierno para colaborar en relación a la evaluación del plan estratégico y con ello proceder a una reflexión conjunta para diseñar una hoja de ruta.*

Beraz, mozio honetan, gobernu-taldeari eskatu behar diogu horrelako akordioak garatzeko Goieki bidez, eta, horregatik, abstenitu egingo gara.

*Por lo tanto, en esta moción falta precisamente instar al equipo de gobierno, para que a través de Goieki, desarrolle este tipo de acuerdos; y por ello, nos vamos a abstener.*

Sukia andrea

*Sukia Andrea*

Bi gauza. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzari hori eskatu genion azken plana 2016-2019koa zelako. Bai, egiten ariko dira, baina 2021ean gaude. Horregatik eskatzen da eguneratzea.

*Dos cosas. Primero, cuando nosotros instamos al Gobierno Vasco, instamos porque el último Plan es del 2016-2019. Efectivamente estarán elaborando pero estamos en 2021. Por eso se pide la actualización.*

Bigarrenik, guk apirilaren 26an aurkeztu genuen mozio hau; proposamena zuzenketa edo ekarpen gisa proposa badaiteke, agian akordioren bat lor dezakegu, baina geroztik ez dugu berririk izan.

*Segundo, nosotros presentamos esta moción en 26 de abril; si la propuesta podría proponerse como una enmienda o aportación, pues quizás podríamos llegar a algún acuerdo, pero no hemos tenido ninguna noticia desde entonces.*

Eta hirugarrenik, ez gara gizarte-zerbitzuen zorro osoaz ari. Goiekirena begien bistakoa da, horretaz hitz egin dugu, eta aurkeztu dugun mozioa arazorik gabe irekitzeko prest gaude, betiere gainerako administrazio publikoen jarduera ezari egiten zaion aipamena desitxuratzen ez badu.

*Y en tercer lugar, no estamos hablando de toda la cartera de servicios sociales. Lo de Goieki es evidente, hemos hablado de ello, y nosotros estamos dispuestos a abrir la moción que hemos presentado sin ningún problema, siempre que no desdibuje la cita que se hace a la inactividad de las restantes administraciones públicas.*

Alkate jauna:

*Sr. Alcalde:*

Zaila da mozio honetan aipatzen diren gaien aurka bozkatzea. Egia da gure eskualdea eremutzat hartuta, ñabardura hori txertatu beharko geniokela, izan ere, egia da gure eskualdean gabezia bat dagoela.

*Es difícil votar en contra de los asuntos a los que se refiere esta moción. Es cierto que teniendo en cuenta nuestra región como ámbito, deberíamos introducir este matiz, ya que es cierto que hay una carencia en nuestra comarca.*

2020ko gizarte zerbitzuetako memoria bukatzear dago jada eta aurkeztuko da, ikusteko Ordizian horrelako zenbat kasu dauden. COVIDaren garaian egon dira eta horrelakoetan, Tolosa izanik gertuen

*La memoria de servicios sociales 2020 está a punto de finalizar y se presentará para ver el número de casos de este tipo habidos en Ordizia. Han habido en la época del COVID, siendo Tolosa el albergue más cercano.*

daukagun aterpetxea.

Beraz, ez Ordiziak bakarrik, baizik eta eskualdeak dauka gabezia handi bat zentzu honetan; eta beraz, eskualde mailan egin behar zaio aurre erronka honi, zerbitzua eskaintzea posible izan dadin. Udal ezberdinen artean ados jarri beharra daukagu eta Iñakik aipatu bezala, guk ere uste dugu Goiekik edo Goiekitik bideratu beharko litzatekeela gaia.

*Por tanto, no solo Ordizia, sino la región tiene una gran carencia en este sentido, por lo que es un reto a afrontar a nivel regional para que la prestación del servicio sea posible. Tenemos que llegar a un acuerdo entre los diferentes ayuntamientos y, tal y como comentó Iñaki, también creemos que el tema debería canalizarse desde Goiekia o el propio Goieki.*

Bertan, orain dela gutxi hausnarketa prozesu bat jarri da martxan; bertan, Mankomunitate gisa eratzeko aukera planteatzen da. Eta garapen horretara iristeko, ekonomia garapenetik haratago, ekonomia sozialean eduki beharko lukeen garapena ere planteatzen da.

*En él se ha puesto en marcha recientemente un proceso de reflexión en el que se plantea la posibilidad de crearse como Mancomunidad. Y para llegar a ese desarrollo, más allá del desarrollo económico, también se plantea su desarrollo en la economía social.*

Egia da eskualde mailan eragozpen handi bat daukagula, izan ere, ez daukagu eskualde mailako erakunde bat. Gure eskualde mailako Mankomunitate bakarra Sasieta da, hondakinak kudeatzeko erabiltzen dena, eta hortik aparte, Goieki daukagu, sozietate gisa antolatuta dagoena.

*Es cierto que a nivel regional tenemos un gran inconveniente, ya que no tenemos una entidad regional, nuestra única Mancomunidad regional es Sasieta, que es la que se utiliza para la gestión de residuos, y además tenemos Goieki, que está organizada como sociedad.*

Zentzu honetan, pausuak eman behar dira eta hor beste udalekin adostasunak lortu behar dira; izan ere, ezin ditugu baliabide hauek bikoiztu udal ezberdinetan. Alegia ez da posible udalerri bakoitzean aterpetxe bana egotea. Adostu egin beharko da non jartzen den.

*Es cierto que en este sentido hay que dar pasos y llegar a consensos con otros ayuntamientos, ya que no podemos duplicar estos recursos en distintos ayuntamientos. Es decir, no es posible que haya un albergue en cada Ayuntamiento. Deberá acordarse el lugar donde se sitúe.*

Eta aipatu beharko litzateke behintzat, Goiekin martxan jarri den hausnarketa prozesu horretan mahai gainean dagoela eskualde mailan artatu beharreko gizarte zerbitzuei erantzun bat ematea.

*Y, al menos, señalar que en este proceso de reflexión que se ha puesto en marcha en Goieki está encima de la mesa la respuesta a los servicios sociales que tenemos que responder a nivel comarcal.*

Dubreuil jauna

*Sr. Dubreuil*

Oso gai garrantzitsua da, eta, beraz, ezinbestekoa da lehendabizi Goiekitik eta gero eskualdetik akordioak lortzea.

*Es un tema muy importante y por tanto llegar a acuerdos primero desde Goieki y luego desde la Comarca es imprescindible.*

Bestalde, pozten naiz Plana amaitzen ari delako, eta, beraz, aurkezpen horren zain geratzen gara horri buruz egin diren aldaketak ikusteko.

*Y por otro lado, me alegro de que se esté acabando el Plan y por tanto, quedamos a la espera de esa entrega para ver las modificaciones que se han hecho al respecto.*

Jarraian, bozketa egin da.

*A continuación se procede a la votación del punto.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 9 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2,
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: (EAJ/PNV 7, PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**7.- Podemos Ordizia Ahal Duguk proposatutako adierazpen instituzionala hilerokoaren pobreziarekin amaitzeko maiatzaren 28an ospatzen den Emakumeen Osasunaren aldeko ekintzen Nazioarteko Eguna dela-eta.**

Maiatzaren 28an, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Ekintza Eguna ospatzen da. Emakumeen aurkako indarkeria ugari erabiltzen dira tresna gisa osasun-kontuak, indarkeria obstetrikoak, gaixotasun mentala, androzentrismoa gaixotasunen azterketan, eta abar, baina hilekoaren pobrezia da ikusezinenetarikoa eta tabuz beterikoa. Hilekoa, gaur egun ere, zerbait intimoa, pribatua, "Emakumeen gauzatzat" hartzen da. Hala ere, soziala, kulturala eta politikoa da. Eta esparru politikoan jarri nahi dugu fokua gaur gure udalerriko herritarren aurrean agertzen garen alderdi politikook; izan ere, sistema kapitalista eta neoliberal horrek pertsonaren izaera produktiboa baino ez du kontuan hartzen, ez du arreta jartzen haren izaeran eta behar fisiologikoetan, eta hilekoa ezaugarri natural gisa eta hari eman behar dizkiogun zaintzak alde batera uzten ditu. Hilekoaren higiene produktuak premia biziko produktuak dira, eta hala ere, ez dira halakotzat hartzen. Egoera horrek, desinformazioarekin, heziketa faltarekin eta hilekoaren inguruan sortutako mitoekin batera, hilekoaren pobrezia hedatua egotea eragiten du.

***7.- Propuesta de declaración institucional presentada por el grupo Podemos Ordizia Ahal Dugu para la erradicación de la pobreza menstrual con motivo del Día Internacional de Acción por la Salud de las Mujeres que se celebra el 28 de mayo.***

*Cada 28 de mayo se celebra el día Internacional de Acción por la Salud de las Mujeres. Existen numerosas violencias contra las mujeres ejercidas utilizando como herramienta cuestiones de salud, violencias obstétricas, enfermedad mental, androcentrismo en el estudio de enfermedades, etc. Pero una de las más invisibilizadas y rodeada de tabús es la pobreza menstrual. El hecho de menstruar es considerado aún hoy, como algo íntimo, privado, una "cosa de mujeres". Sin embargo, es social, cultural y político. Y es en el marco político donde los partidos políticos que hoy comparecemos ante la ciudadanía de nuestro municipio queremos poner el foco, ya que este sistema, capitalista y neoliberal sólo contempla el carácter productivo de la persona, no pone el foco en su propia naturaleza y necesidades fisiológicas, y obvia una característica tan natural como la menstruación y los cuidados que debemos prestarle a la misma. Los productos de higiene menstrual son productos de primera necesidad y a pesar de ello no están considerados como tal. Esta situación, junto con la desinformación, la falta de educación y los mitos creados en torno a la menstruación, dan lugar a que exista una extendida pobreza menstrual.*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Hilekoaren pobrezia honela definitzen da: hilekoaren odoljarioa jasotzeko produktu egokirik ez izatea, xaboirik eta edateko moduko urik ez izatea, eta horrekin batera higienerako leku segururik eta saneaturik ez izatea. Gainera, hilerokoaren tabua, mito faltsuak eta estigma gehitzen dira, eta horrek zaildu egiten du arazo horrek premiazko izaera hartzea.

*La pobreza menstrual se define como la falta de acceso a productos adecuados para la recogida del sangrado menstrual, la falta de jabón y agua potable, así como la falta de lugares seguros y saneados para la higiene. Además se añade el tabú que encierra la menstruación, los falsos mitos y el estigma que supone, lo que dificulta que este problema adquiera el carácter urgente que tiene.*

Une honetan, COVID-19aren krisiak eraginda, pobreziaren mugatik behera dauden pertsona-kopurua hazten ari da eta familia askok ez du diru-sarrerarik jasotzen ia eta oinarrizko beharrak asetzeko zailtasun larriak dituzte. Une honetan, hilekoaren pobreziari ere erreparatu behar zaio. Izan ere, arazo hori areagotu egin da pandemiaren ondorioz; izan ere, ez da bermatzen hileroko higiene-produktuen banaketa premia handiena duten pertsonen artean, produktu horiek eskuratzeko oinarrizko beharra ikusezin bihurtu baita.

*En un momento como el que atravesamos marcado por la crisis de la COVID-19, en el que el número de personas por debajo del umbral de la pobreza está creciendo, y en el que muchas familias están dejando de percibir ingresos y tienen graves dificultades para cubrir sus necesidades básicas, también se debe poner el foco en la pobreza menstrual. Y es que esta problemática se ha acrecentado debido a la pandemia, ya que no se está asegurando la distribución de productos de higiene menstrual entre las personas más necesitadas, dada la invisibilización de la necesidad básica que supone el poder acceder a dichos productos.*

Ez da onargarria, gure lurraldean halako pobrezia egonik, hilekoaren hezkuntza azpimarratzen duen eta hilekoaren higiene-produktuak doan eskuratzea errazten duen politikarik ez egotea. Edo, behintzat, premia-premiazko produktutzat hartzea, eta beraz, aplikatzen zaien BEZa murriztea. Izan ere, produktu horiek eskuratzerik ez izateak hilekoa dutenen eguneroko bizitzetan zuzeneko eragina du.

*No es admisible que existiendo tal pobreza en nuestro territorio, no existan políticas que hagan hincapié en la educación menstrual y que faciliten el acceso de manera gratuita a los productos de higiene menstrual. O al menos que se consideren como productos de primera necesidad, y por tanto se reduzca el IVA que se les aplica. Ya que la imposibilidad de acceder a estos productos tiene un impacto directo en la vida diaria de quienes menstrúan.*

Horrenbestez, honako hau adierazi nahi dugu:

*En consecuencia queremos expresar lo siguiente:*

1.-Gure burua erkidego aurreratutzat eta berritzailetzat dugunez, gure erantzukizuna izan beharko litzateke hilekoaren pobrezia hori arintzea, eta horretarako, ikastetxe, erakunde edo espazio publiko guztietan hilekoaren higiene-produktuen, azpiegituren eta higiene horretarako espazio egokien doako sarbidea bermatzea.

*1.-Como autonomía avanzada e innovadora que nos consideramos, debería ser nuestra responsabilidad paliar esta pobreza menstrual garantizando el acceso gratuito a productos de higiene menstrual, infraestructuras y espacios óptimos para dicha higiene, en todos los centros de estudios, instituciones o espacios públicos.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

2.- Hileko pobrezia desagerrarazteko, funtsezkoa da herritarrak hilekoarekin lotutako gaietan sentsibilizatzea eta prestatzea. Bereziki haur eta nerabeen artean hilekoaren hezkuntzaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egin beharko lirateke, gai hauek barne hartuta: hilekoaren osasunaren sustapena, hilekoaren pobreziaren existentzia eta hilekoaren inguruko mito eta tabuen jatorria. Horrela, gazteenek desinformazioa, hilekoak dakartzan estigmak eta desberdintasunak transmititzeari eta sendotzeari utziko diote.

*2.-Es fundamental para erradicar la pobreza menstrual hacer hincapié en la sensibilización y formación de la población en cuestiones relacionadas con la menstruación. Llevando a cabo campañas de sensibilización y formación especialmente entre niñas, niños y adolescentes en torno a la educación menstrual. Incluyendo temáticas como la promoción de la salud menstrual, la existencia de la pobreza menstrual y el origen de los mitos y tabúes existentes en torno a la menstruación. Para que de esta manera los y las más jóvenes no sigan siendo agentes transmisores y perpetuadores de la desinformación, los estigmas y desigualdades que supone el hecho de menstruar.*

3.- Arazoa agerian utzi eta benetan norainokoa den jakiteko, funtsezkoa iruditzen zaigu hilekoaren pobreziari buruzko berariazko azterlan bat egitea Euskadin, diagnostikoa egiteko eta aplikatzekoak diren politika publikoen gomendioak jasotzeko.

*3.-Atendiendo a la necesidad de visibilizar esta problemática y poder conocer el verdadero alcance de esta, vemos fundamental el que se elabore un estudio específico a nivel de Euskadi sobre la pobreza menstrual que sirva de diagnóstico y contenga recomendaciones de políticas públicas de aplicación.*

Gaur egun ere tabuz beteta dagoen hilekoa espazio pribatutik atera behar dugu. Ezin dugu onartu prozesu fisiologiko batek diskriminazioa eta pobrezia eragitea. Aipatzen ez dena ez da existitzen, hori da gure lanaren oinarrizko premisa. Horregatik, Ordiziako alderdi politikook hain hedatua dagoen hilekoaren pobrezia ikusarazi nahi dugu, pobrezia hori desagerrarazteko lehen urrats gisa.

*Debemos sacar la menstruación del espacio privado y lleno de tabús que sigue ocupando hoy en día. No podemos permitir que un proceso fisiológico suponga un motivo de discriminación y pobreza. Lo que no se nombra no existe, esta es la premisa base de nuestro trabajo, por ello los partidos políticos del municipio de ORDIZIA queremos visibilizar la existencia tan extendida de la pobreza menstrual como primer paso para erradicarla.*

Eztabaida

*Debate*

Eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Sukia Andrea

Mozioa irakurri du.

*Sra.Sukia*

*Ha procedido a la lectura de la moción.*

Bolinaga jauna

Guri oso ondo iruditzen zaigu mozio hau. Egia da emakumeen pobrezia hilerokoarekin are gehiago handitzen dela.

Ez dugu ulertzen zergatik ez diren oinarrizko produktu gisa kalifikatzen hilerokoarekin lotutako zenbait produktu; eta era berean, uste dugu hilerokoarekin zerikusia duten zenbait gauza edo kontu normalizatu egin beharko liratekeela. Alegia, hilerokoaren inguruan normaltasun osoz hitz egin

*Sr.Bolinaga*

*Estamos a favor de esta moción. Es cierto que la pobreza de las mujeres aumenta aún más con la menstruación.*

*No entendemos por qué no se califican como productos básicos ciertos productos relacionados con la menstruación, y creemos que algunas cosas o cuestiones relacionadas con la menstruación deberían normalizarse. Es decir, creemos que deberíamos hablar de la menstruación con total normalidad.*

beharko genukeela iruditzen zaigu.

Beraz, alde bozkatuko dugu.

Jarraian, bozketa egin da.

*Así que votaremos a favor.*

*A continuación se procede a la votación.*

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 17 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 7, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- Tokiko Gobernu Batzordearen eskumenak aldatzen dituen Dekretuaren berri ematea (2020/0623 Dekretua ordezkatzen duen 2021/0622 Dekretua).**

**2021/641 DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

Maiatzaren 21eko 2021/0622 Dekretu bidez, Alkatetza honek Tokiko Gobernu Batzarrari zenbait eskumen eskuordetu zizkion.

Eskuordetutako eskumen horien artean dago, besteak beste, hurrengoa:

- Kontratazio espediente hauek onartzea: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei miloi euro bainoa handiagoa; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urte baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten %10 baino handiagoa, ezta sei miloi euro baino handiagoa ere.

***8.- Dación de cuenta del Decreto que modifica las competencias de alcaldía delegadas en favor de la Junta de Gobierno Local. (Decreto 2021/0622 que sustituye al Decreto 2020/0623).***

***DECRETO Nº 641/2021***

***A LA VISTA DE :***

*Por Decreto 2021/0622, de 21 de mayo, se dispuso la delegación de diversas competencias de la Alcaldía en la Junta de Gobierno Local.*

*Entre las competencias delegadas se encuentra, entre otras, la siguiente:*

- *Aprobación de los expedientes de contratación de obras, de suministro, de servicios, de contratos de concesión de obras, de concesión de servicios y de contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado del 10%, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía indicada de seis*

Ahalmen horrek berarekin darama gastua baimentzeko ahalmena.

*millones de euros. Esta facultad lleva implícita la facultad de autorización del gasto.*

Eskuordetze honetan ez dira kontratu txikiak sartzen.

*Se exceptúan de la delegación los contratos menores.*

Azken boladan, ordea, ikusi da, eskumen hau Tokiko Gobernu Batzordearengan eskuordetuta edukitzeak Udalaren lan-administratiboa oztopatzen duela, izan ere, askotan, urgentziaz hartu beharreko erabakiak dira eta Tokiko Gobernu Batzarra 15 egunez behin elkartzeak, kontratazio espedienteen hasierako onarpena atzeratzen du.

*En la práxis, sin embargo, se ha visto que la delegación de la citada competencia en la Junta de Gobierno Local obstaculiza la actividad administrativa del Ayuntamiento, pues se trata de decisiones que requieren una respuesta pronta, y el hecho de que la Junta de Gobierno Local se reúna cada 15 días, demora la aprobación inicial de los expedientes de contratación.*

Beraz, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak bere 3. artikuluan ezartzen dituen printzipioei so eginik, (administrazio-prozeduren eta kudeaketa-jarduera materiaren arrazionalizazioa eta arintasuna, ezarritako helburuen eraginkortasuna eta efizientzia) beharrezkotzat jo da 2021/0622 Dekretua baliogabetu eta aurrerago zehaztu den eskumena berriro Alkatetzak bereganatzea.

*Por tanto, y amén a los principios establecidos en el art. 3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre (racionalización y agilidad de los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión, eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados y eficiencia), se ha considerado necesario revocar el Decreto 2021/0622 con el fin de que la competencia antes citada sea asumidas de nuevo por la Alcaldía.*

Guzti honen helburua, beraz, Ordiziako Udalaren administrazio jardunari ahalik eta eraginkortasun mailarik handiena ematea da, behar ez diren oztopoak saihestuz. Alegia, finean, “administrazio onaren” printzipio eta eskubidea bermatzea beste helbururik ez du.

*Por tanto, el objetivo de todo ello es dotar de una mayor eficacia a la actuación administrativa del Ayuntamiento de Ordizia, evitando obstáculos innecesarios. En fin, no tiene otro objetivo que garantizar el principio y el derecho a la “buena administración”.*

Hori horrela, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21 eta 23 artikuluek, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43 eta hurrengo artikuluek eta Udalaren Araudi Organikoaren 14-18. artikuluek aitortutako eskumenen harira,

*Por lo expuesto, y en virtud de las atribuciones conferidas en los arts. 21 y 23 de la Ley 7/985, de 2 de abril, artículos 43 y siguientes del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre y los artículos 14-18 del Reglamento Orgánico Municipal,*

**ONDORENGOA ERABAKI DUT:**

***TENGO A BIEN*:**

**LEHENENGOA-.** Tokiko Gobernu Batzarrari eskumenak eskuordetzen dizkion 2021/0622 Dekretua indargabetzea.

***PRIMERO-.*** *Dejar sin efecto el Decreto 2021/0622 por el que se delegan competencias en favor de la Junta de Gobierno Local.*

**BIGARRENA-.** 2019ko uztailaren 18ko 2019/0665 Dekretuaren bidez eratu zen Tokiko Gobernu Batzordeak, Alkatetza honek eskuordetuta, jarraian zehazten diren eskumenak izango ditu:

***SEGUNDO****-. La Junta de Gobierno Local conformada según el Decreto 2019/0665 de 18 de julio, ostentará, por delegación de esta Alcaldía, las siguientes atribuciones:*

Ogasuna-Ekonomia:

- Dirulaguntzak eta laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko deialdiak eta ebazpenak onartzea. Eskuordetze honetatik kanpo gelditzen dira, eta

*Hacienda-Economía:*

- *Aprobación de convocatorias para la concesión de subvenciones y ayudas en régimen de concurrencia competitiva, así como su resolución. Quedan fuera del*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

honenbestez, Alkatetzari dagokio azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22. Artikuluan aurreikusten dira mota guztietako laguntzak eta dirulaguntzak ematea, horiek formalizatzeko hitzarmenak barne, eta baita gizarte larrialdietarako planen arabera ematen diren gizarte laguntza, banakako laguntzak etab. ere.

Ondarea-Kontratazioa:

- Lokalak doan lagatzea urtebete baino gehiagorako, baldin eta ez bada Osoko Bilkuraren eskuduntza.
- Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea, 6.000 eurotik gorakoak direnean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio zentralaren kontratazio espedienteetara atxikitzea. Ahalmen honek berarekin darama gastua baimentzeko ahalmena.
- Udalbatzaren eskumena ez diren toki-ondasunei buruzko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare legediari lotutako eskubideak eskuratzea, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino handiagoa eta 3 miloi baino handiagoa eta baita ondarea besterentzea ere, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.
- Bide administratibotik etxegabetzeak onartzea.

Hirigintza, Ingurumena eta Obrak:

- Espresuki Udalbatzaren eskumenekoak ez diren antolamendu orokorraren garapenerako tresnen onarpena (hasierakoa eta behin-behinekoa) eta baita hirigintza kudeaketa eta hirigintza proiektuen kudeaketarako tresnen onarpena ere.
- Obra handietarako baimenak ematea.
- Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, II A Eranskinean jasotako

*ámbito de la delegación efectuada y por consiguiente se reserva la Alcaldía la concesión de todo tipo de ayudas y subvenciones previstas en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y subsiguientes convenios de formalización, así como las ayudas sociales que se autorizan conforme a los planes de emergencia social, ayudas individualizadas, etc.*

*Patrimonio-Contratación:*

- *Aprobación de cesiones gratuitas de uso de locales por periodos superiores a un año, que no sean competencia del Pleno.*
- *Resolver expedientes de responsabilidad patrimonial de importe superior a 6.000 euros.*
- *Adhesión a los expedientes de contratación de la Central de Contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como la autorización del gasto correspondiente.*
- *Adjudicación de concesiones sobre los bienes municipales que no sean competencia de pleno y adquisición de bienes inmuebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial cuando el presupuesto base de licitación no supere el 10 % de los recursos ordinarios del Presupuesto ni los tres millones de euros, así como la enajenación del patrimonio que no supere el porcentaje ni la cuantía indicados.*
- *Aprobación de desahucios por vía administrativa.*

*Urbanismo, Medio Ambiente y Obras:*

- *La aprobación de los instrumentos de planeamiento de desarrollo del planeamiento general no expresamente atribuidas al Pleno (inicial y provisional) así como la aprobación de los instrumentos de gestión urbanística y proyectos de urbanización.*
- *Concesión de licencias de obra mayor.*
- *Concesión de licencias correspondientes a instalaciones y actividades clasificadas, incluidas en el Anexo II A de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, de Protección General del*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

jarduera klasifikatuen jarduera baimenak ematea.

- Aurri espedienteak ebaztea, berehalako aurrikoak izan ezik.
- Hirigintza esparruko espediente zigortzaileak ebaztea.
- Baimenen edo lizentzien iraungipen-espedienteak ebaztea.
- Zarata mapak eta ekintza planak onartzea, urriaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren 18 eta 19. artikuluen arabera, eta baita klima-aldaketaren aurkako ekintza-planak onartzea ere, Udalbatzaren eskumena ez denean.

Langileria:

- Plenoak onartutako Aurrekontuaren eta Plantillaren arabera Lan Eskaintza Publikoa onartzea, Pertsonala aukeratzeko eta lanpostuak hornitzeko frogen oinarriak eta deialdiak onartzea, eta finkoak eta aldizkakoak diren lansari osagarriak ematea.
- Diziplina espedienteak ebaztea eta edozein pertsonal mota, prebentzioz, ohartaraztea eta aldi baterako bere funtzioetatik baztertzea, gaikuntza nazionalerako erreserbatuta dauden postuak betetzen dituzten funtzionarioak salbu, dagokion zigor erregimenaren arabera arautuko baitira.

Desadostasunak:

- Eskuordetu gabeko eta Alkatetza honen baitan erreserbatuta dauden gaiak Gobernu Batzordearengan eskuordetuko dira honako kasu hauetan:
  - Gai berari buruz egindako txosten teknikoak kontraesankorrak izatea.
  - Proposamen politikoen eta txosten teknikoen artean desadostasunak egotea.

Eskumenen delegazio hau toki-agintaldi honetara mugatzen da, aldi horretan eskumenak delegatu dituen organoak horiek baliogabetu, abokatu edo aldatzeko duten ahalmenari kalterik egin gabe, beti ere, kasuan kasuko prozedura formala jarraituta.

*Medio Ambiente.*

- *Resolución de expedientes de ruina, salvo los de ruina inminente.*
- *Resolución de expedientes sancionadores en materia urbanística.*
- *Resolución de expedientes de declaración de caducidad de licencias.*
- *Aprobación de los mapas de ruido y planes de acción de conformidad con los artículos 18 y 19 del Decreto 213/2012 de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la aprobación de los planes de acción contra el cambio climático, cuando no sean competencia del Pleno.*

*Personal:*

- *Aprobación de la Oferta de Empleo Público de acuerdo con el Presupuesto y la Plantilla Orgánica aprobados por el Pleno, las bases y convocatorias para selección del personal y para la provisión de los puestos de trabajo, así como la distribución de las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas.*
- *Resolución de expedientes disciplinarios así como apercibir y suspender preventivamente a toda clase de personal, excepto los funcionarios que ocupen puestos reservados a habilitación nacional que se regirán por su propio régimen disciplinario.*

*Discrepancias:*

- *En cualquiera de las materias no delegadas y reservadas para su ejercicio a esta Alcaldía, se delegarán en la Junta de Gobierno en los siguientes casos:*
  - *Cuando existan informes técnicos contradictorios sobre el mismo asunto.*
  - *Cuando se formulen propuestas políticas e informes técnicos discrepantes.*

*La presente delegación de atribuciones se circunscribe al período del actual mandato de la corporación municipal, sin perjuicio de que durante dicho período el órgano delegante, previo cumplimiento de los requisitos formales*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Hori horrela, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak bere 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki, urgentziazko kasuetan edota inguruabar tekniko, ekonomiko, sozial, juridiko edo lurraldekoak hala eskatuta, Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetu dizkion eskumenak abokatu ditzake, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta eta behar bezala arrazoituta.

**HIRUGARRENA**-. Tokiko Gobernu Batzordea bi astean behin bilduko da ohiko bilkuran, ostegunetan, 13:00etan.

Adierazitako eguna jaieguna tokatuko balitz, bilkura hurrengo lanegunean egingo litzateke.

**LAUGARRENA**-. Abuztuan ez da ohiko bilerarik egingo, oporrak direla-eta.

Aldez aurretik finkatutako egunak Gabonetako edo aste santuko opor garaiaren bat egiten badu, aurreratu edo atzeratu egingo da bilera.

**BOSGARRENA**-. Erabaki honek eragina izango du sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**SEIGARRENA**-. Dekretu hau jakinaraztea izendatutako zinegotziei, Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei.

**ZAZPIGARRENA**-. Udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran Dekretu honen berri ematea.

**ZORTZIGARRENA**-. Laburbilduta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrialdean argitaratzea.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

*establecidos, pueda revocar, avocar o modificar dichas atribuciones.*

*En efecto, y de conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, en casos de urgencia o cuando concurran circunstancias de índole técnica, económica, social, jurídica o territorial, la Alcaldía puede avocar las competencias delegadas en la Junta de Gobierno Local, teniendo en cuenta las circunstancias del caso concreto y mediante acuerdo motivado.*

***TERCERO**-. La Junta de Gobierno Local se reunirá en sesión ordinaria cada 2 semanas, los jueves a las 13:00 horas.*

*En caso de que dicho día fuese festivo, la sesión se celebrará el día hábil inmediatamente posterior.*

***CUARTO**-. No se celebrarán sesiones ordinarias durante el mes de agosto, como consecuencia del período vacacional.*

*Cuando el día fijado coincida con las vacaciones navideñas o de semana santa, se pospondrá o adelantará la celebración de la sesión en cuestión.*

***QUINTO**-. La presente resolución surtirá efectos desde el día siguiente a la firma de la misma.*

***SEXTO**-. Comunicar este Decreto a los concejales nombrados y a los responsables de los diferentes Departamentos municipales y entes dependientes del Ayuntamiento.*

***SÉPTIMO**-. Dar cuenta de este Decreto al Pleno del Ayuntamiento en la primera sesión que se celebre.*

***OCTAVO**-. Publicarlo, en extracto, en el Boletín Oficial de Guipúzcoa y página web municipal.*

** Notifíquese el presente Decreto al interesado.*

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Azaldu du pertsonaletik adierazi izan zaiela, antolaketan eta egunerokotasunean zailtasunak sortzen zaizkiela eskumen hau Tokiko Gobernu Batzordean eskuordetuta edukitzeak eta beraz, eskuordetza hau errebokatzea erabaki da; izan ere, mugimendu asko izaten da, batik bat, bajei dagokienean, eta beraz, eskumen hau izan da errebokatua izan dena.

Ondorioz, izendapen horiek dekretu bidez onartuko dira eta ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeari jakinaraziko zaizkio hartutako erabaki horiek.

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*Sr. Alcalde*

*Explica que desde el personal les ha manifestado que en la organización y en el día a día les genera dificultades tener delegada esta competencia en la Junta de Gobierno Local, por lo que se ha optado por revocar esta delegación, ya que hay muchos movimientos, sobre todo en materia de bajas, por lo que esta competencia ha sido revocada.*

*En consecuencia, dichas designaciones se aprobarán mediante Decreto y posteriormente se comunicarán a la Junta de Gobierno Local los acuerdos adoptados.*

**Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**9.- Apirilean zehar onartutako Alkatetza dekretuen berri ematea**

***9.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de abril.***

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, inork ez du hitzik hartu.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**10.- Galde-erreguak**

Inork ez du hitzik hartu.

***10.- Ruegos y preguntas***

*No ha habido.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; eta hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo el Secretario, certifico.

ALKATEAK / EL ALCALDE

**ADUR EZENARRO AGIRRE - 44142431A**
**Data / Fecha: 12/07/2021**

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

**AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA - 72522979T**
**Data / Fecha: 09/07/2021**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus